

TEKNOLOGIA BERRIAK

Azoka nabigatzaileen esku

Gizartea itsu-itsuan doa; aurrerapenak ez du mugarik. Azokak garaikidea izaten jarraitu nahi badu, teknologia aldaketetara eta garai berrietara egokitu behar du. Behar hori, ordea, ez da Durangori leporatzeko moduko zerbait; izan ere, bost urte daramatza erronka berriari heldu nahian. Hala azaldu digu, bederen, Itziar Irazábal Gerediaga Elkarteko prentsa arduradunak: «Duela bost urte azokan teknologia berriak bultzatzeko apustua egin genuen, eta astiro-astiro beren lekua egiten ari direla esango nuke».

Euskara eta euskal kultura teknologia berriak baliatzen hasiak dira dagoeneko; beraz, elkartek berrikuntza horien trenean igotzea erabaki du, tradizio hutsean oinarrituriko geltokian geratzeko arriskurik izan ez dezan. Antolatzaileek gazte eta ez hain gazte direnen nahiak asetzeko ardura hartu dute, argitaletxe ugariaren eritmoari eutsi dioten bitartean.

Zibergunearen estreinaldia

«Duela bospasei urte argitaletxeek hiruzpalau CD-ROM zituzten, besterik ez. Orain,



XOUSE SIMAL

Bisitariak nabigatzeko aukera izan dezaten, ordenagailuz hornituriko txoko bat jarriko dute antolatzaileek.



Tradizioz beteriko Durangoko Azokak ez du teknologia berrien aldetik atzean geratu nahi. Hala, aurten zibergunea jartzea erabaki dute

aldiz, kopuru hori izugarri handitu da, eta erabilera horren kokapena finkatu behar da azokan», azaldu digu Itziarrek. Azken urteotan, gazteak, argitaletxeen lanak ikustera ez ezik, nabigatzera ere hurbildu izan dira azokara; beraz, horren inguruan zerbait antolatzea erabaki dute: «Aurten, lehendabiziko aldiz, zibergunea jarriko dugu. Oraindik ez dugu ordenagailu kopurua finkatu, baina 10-15en bat izango dira». Beraz, Elhuyar, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia urtero bezala bertan egongo badira ere, ordenagailuz hornituriko beste txoko bat jartzeko asmoa azaldu dute.

Argitaletxe batzuek apustu indartsua egin dute teknologia berrien inguruan, eta pixkanaka-pixkanaka berrikuntzek beren tokia lortu dute, argi dago hori. «Ziberlekuak modan dauden honetan, guk ziberazoka sortuko dugu», dio Irazabalek barrez. «Hasiera batean beldurra zen nagusi: ordenagailuen erruz liburuak desagertuko ote dira? Egun garbi ikusten dugu kontrario baino areago osagarriak direla», gaineratu du elkarteko prentsa arduradunak.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Bi liburuok hemen dituzu salgai:

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Unibertsitateko etorbidea z/g
20600 Oñati (Gipuzkoa)
Tf.: 943 782 000
Fax: 943 783 177
argitalpenak-ivap@ivap.es